

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

303/2016 Foru Agindua, urriaren 14koa, ebazten duena Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buru lanpostua (1014.001 kodea) lehiaketa bidez betetzeko deialdia, maiatzaren 13ko 179/2016 foru agindu bidez onartua

Deialdiaren ebazpena, Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1014.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko maiatzaren 13ko 179/2016 Foru Aginduaren bidez eginarena.

Maiatzaren 13ko 179/2016 Foru Aginduaren bidez, Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1014.001), berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen.

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, Balioespen Batzordeak proposatzen du lanpostu hori Raquel Sanchez García andreari esleitzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoarekin ezarritakoarekin bat etorritik, Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta, otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko atxikitzea Raquel Sanchez García andrea Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1014.001).

Bigarrena. Ezin zaio uko egin esleitutako lanpostuari eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango du parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, baldin eta funtzionarioak lanpostu hori galtzen ez badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikuluan 3. paragrafoan eta 4. paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena. 2016ko urriaren 18an utziko du jatorrizko lanpostua.

Laugarrena. 2016ko urriaren 19an jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan -azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin loturik- aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Gasteiz, 2016ko urriaren 14a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR